
HERNANI. EMAKUMEEN ETXEA: 4. fase LORATU_TALLER PUZZLE DE ARQUITECTURA

-21-11-2016. ACTA DE LA SESION-



BILERAREN XEHETASUNAK/ DETALLES DE LA REUNIÓN:

- Data/ Fecha: 2016-11-21
- Lekua/ Lugar: Beterri eta Emakumeen etxea
- Hasiera ordua/ Hora de inicio: 18:00
- Amaiera ordua/ Hora de finalización: 20:00
- Dinamizatzaileak/ Dinamizadores/as: Maitane Barrenetxea, Mainer Alvarez, Ainhoa Retegi eta Miren Lanz.

1. EMAKUMEEN ETXEAREN ESPAZIOARI BISITA / VISITA AL ESPACIO DE LA CASA DE LAS MUJERES

Fase berri honi hasiera emateko, ezinbestekotzat jotzen zen Emakumeen Etxea izango den espazioa bera zuzenean ezagutzeko aukera izatea, horregatik saioa Beterriren egoitzan izan bada ere, gerturatutakoei Emakumeen Etxea izango denaren sarreran egin zaie harrera.

Gerturatutako emakume guztiekin eraikinean sartu eta eraikineko hainbat gela, komunak eta patioa bisitatzeko aukera izan dugu.

Para dar comienzo a esta nueva fase, se consideró totalmente necesario poder conocer de primera mano el espacio en el que se establecerá la casa de las mujeres. Por ello, aunque la mayoría de la jornada se realizó en el edificio de Beterrí, la recepción a las que acudieron a la jornada se realizó en la entrada de la que será la casa de las mujeres.

Con todas las mujeres que se acercaron a esta primera reunión de la cuarta fase, se realizó una breve visita por el edificio, pudiendo ver un par de salas, los baños y el patio interior.

2. AURKEZPENA / PRESENTACION

Gaurko saioa 4. Fase "Loratu"-ren lehenengo izan da, fase honetan Emakumeen etxearen espazioa lantzea izango da helburua.

Fase honen aurkezpen orokorra Maitane Barrenetxeak egin du, ondoren Irantzu Jauregi Hernaniko Berdintasun teknikariak espazioa lantzeko alde aurretik lanketa bat egin dela adierazi du eta baita espazioa AMHER eragilearekin elkarbanatuko dela ere.

Maitanek azaldu du fase honen lanketarako Hiritik At kolektiboa prozesuan ere lanean ibili dela. Hiritik At kolektibotik etorritako Miren Lanz eta Ainhoa Retegi aurkeztu ditu. Hiritik At espazioarekin harremana duten prozesuetan lan egiten duen kolektiboa da eta horregatik, hain zuzen ere, prozesu honetan "Loratu" fasearen diseinuan eta dinamizazioan parte hartuko du.

Azkenik Ainhoa Retegik, Hiritik At-eko kideak hartu du hitza eta saio honetan burutuko den dinamika aurkeztu du:

- Espazioaren aurkezpena
- Arkitektura puzzlea ariketa

La sesión de hoy, ha sido la primera de la 4º fase "Loratu". El objetivo de esta fase será el de trabajar el espacio de la casa de las mujeres.

La presentación general de la fase lo realizó Maitane Barrenetxea. A continuación Irantzu Jauregi, técnica de la sección de igualdad del ayuntamiento de Hernani, explicó que se ha realizado un trabajo previo para trabajar el espacio y que dicho espacio se va a compartir con el colectivo AMHER.

Posteriormente, Maitane ha comentado que para la elaboración de esta fase el colectivo Hiritik at ha estado trabajando en el proceso, y ha procedido a la presentación de Miren Lanz y Ainhoa Retegi, trabajadoras del colectivo mencionado. Hiritik at es un colectivo que trabaja en procesos que se relacionan con el espacio y por ello, dentro de este proceso, participaron en el diseño y dinamización de la fase "Loratu".

Por último, Ainhoa Retegi ha cogido la palabra y ha presentado la dinámica que se llevará a cabo en esta sesión:

- Presentación del espacio
- Ejercicio puzzle de arquitectura

3. ESPAZIOAREN AURKEZPENA/PRESENTACION DEL ESPACIO

Ariketa egiten hasi baino lehen, proiektatutako aurkezpen baten bitartez Ainhoa Retegik eraikinaren planoak aurkeztu ditu. Plano hauetan eraikina eta baita kanpoaldea aurkeztu ditu. Eraikinean dauden gelak aurkezterakoan, AMHER zein Berdintasun arlotik aldeztatik identifikatutako beharrezko espazioak azaldu dira Aldeztatik aurretik funtzio bat esleitua duten gelak zeintzuk diren adierazi eta ze funtzio eman erabakitzeko dauden espazioak nabarmendu dira. Erabakitzeko dauden espazioak ondorengoak dira:

Antes de empezar con el ejercicio Ainhoa Retegi ha presentado los planos del edificio. En estos planos ha presentado tanto el edificio como la parte exterior. Al presentar las salas del edificio, se ha explicado que AMHER y el departamento de igualdad necesitan determinados espacios.

Se han identificado las salas que ya tienen una función asignada y se ha especificado que espacios quedan para asignarles una función:

- 2 gela / 2 salas
- Barne patioa / Patio interior
- Kanpo eremua / Zona exterior

Zalantza eta galderen tarteak irekitzean hainbat galdera eta zalantza sortu dira.

Lehenengoa aldeztatik definitutako espazioak nor eta zergatik erabaki diren. Galdera honi erantzunez, hasierako aurkezpenean nahi bezain beste azaldu ez dena argitu da. Espazioa AMHER-ekin elkarbanatua izango denez, saio honetan espazioaren inguruan hausnartu aurretik berdintasun teknikariek hainbat bilera egin izan dituzte beraiekin, beraien premiak zeintzuk izango liratezken jakiteko asmoz. AMHER-en espazio eskaera ondorengoak izan da:

- 2 gela
- Gela intimo txikiago bat
- Sukaldea

Al finalizar la presentación han surgido varias preguntas y dudas.

La primera ha sido, quien y porque se han determinado unos espacios anteriormente. Respondiendo a esta pregunta se ha aclarado un poco más lo explicado en la presentación. Partiendo de que el espacio va estar compartido con AMHER SOS Arrazakeria, las técnicas de igualdad han mantenido varias reuniones con este colectivo para saber cuáles eran sus necesidades en cuanto al espacio. Las necesidades de AMHER son las siguientes:

- 2 aulas
- Una sala íntima más pequeña
- Cocina

Bestalde, Irantzu berdintasun teknikariak gaur egun berdintasun arloa kokatua dagoen Plaza feministaren txokoa, Emakumeen etxea martxan jartzean desagertu egingo dela azaldu du, beraz gaur egun dauden premiei erantzun beharko dio eraikin berri honek, ondorengoak dira:

- Berdintasun teknikarien bulegoa
- Eragileentzako bilera gela eta biltegia
- Tailerrak edo bestelako ekimenak garatzeko gela handi bat
- Eraikin berriaren etorkizuneko dinamizatzailearen txokoa

Zalantzak sortarazi dituen beste gaia sukalde moduan izendatutako gela da, sukalde baten beharra zalantzan jarri da eta bestalde, batzuek ez zuten argi ikusten sukaldea izatekotan hain espazio handia eskaintzea. Azken zalantza guzti hauek aintzat harturik saioan garatu beharreko ariketan sukaldearen espazioa ere txertatzea erabaki da dinamizatzaileen aldetik.

Ondorengo irudietan proiektatuko aurkezpena ikusi daiteke.

Por otro lado, Irantzu la técnica de igualdad ha explicado que cuando la nueva casa de las mujeres se ponga en marcha, la actual Plaza feminista va a desaparecer, por eso, este nuevo edificio tendrá que garantizar las funciones actualmente existentes que son las siguientes:

- *Oficina del departamento de Igualdad del ayuntamiento*
- *Aula para las asociaciones/agentes y almacén*
- *Un aula grande para poder realizar actividades y talleres*
- *Espacio para la futura dinamizadora del nuevo edificio*


Otra de las cuestiones que ha generado debate ha sido la sala pensada como cocina, ya que algunas cuestionaban la necesidad de una cocina y otras no veía muy claro la necesidad de una cocina tan grande. Viendo las dudas que suscitaba esta cuestión, las dinamizadoras han decidido insertar el espacio de la cocina en el ejercicio a realizar.

En las siguientes imágenes se puede ver la presentación que se ha proyectado.


4. FASEA IORATU EMAKUMEEN ETXeko ESPAZIOA LANTZEN



4. FASEA LORATU EMAKUMEEN ETXeko ESPAZIOA LANTZEN



4. FASEA LORATU EMAKUMEEN ETXeko ESPAZIOA LANTZEN



KANPO EREMUA



4. ARKITEKTURA PUZLEA ARIKETA / EJERCICIO DEL PUZZLE DE ARQUITECTURA

Saio honetan burutu beharreko Arkitektura puzzle deituriko ariketa aurkeztu da lehenik eta behin. Metodologia ondorengoa izan da:

Behin espazioa aurkeztua, funtzio konkretu bat esleiturik ez duten espazio/eremuetan zentratu gara, helburua hain zuzen ere, hauen funtzioen definizio eta aurre diseinua egitea izan da.

Ariketak bi atal izan ditu, lehenik talde txikietan lan egin dugu.

Para empezar se ha presentado el ejercicio a realizar, el Puzzle de Arquitectura. La metodología ha sido la siguiente:

Una vez presentado el espacio, nos hemos centrado en los espacios/zonas que no tienen una función asignada. El objetivo ha sido definir y hacer un diseño previo de estos espacios.

El ejercicio ha tenido dos partes, para empezar hemos trabajado en grupos pequeños.

TALDE TXIKIAK

Ariketa hau garatzeko lehenengo 4-5 pertsonetako talde txikiak egin dira, partaide kopurua ikusita 4 talde egin dira. Ariketa burutu ahal izateko, definitu beharreko espazioen taulak banatu dira talde bakoitzarentzat, bertan espazio/eremu bakoitzaren funtzioa eta publikotasun maila zehazteko eskatu da. Bestalde, aurreko atalean sukaldearekiko sorturik zalantzak ikusita, aurreikusita ez zegoen sukaldearen gela ere ariketa honen barne kontutan hartzea eskatu da, hau da, beste eremu bat gehiago izango balitz bezala. Talde bakoitzari lanerako eskainitako taulak jarraian ikus daitezke.

GRUPOS PEQUEÑOS

Para desarrollar este ejercicio se han hecho grupos de 4-5 personas, viendo la cantidad de las participantes se ha decidido hacer 4 grupos. Se han repartido unas tablas a cada grupo donde aparecían los espacios a trabajar, en estas tablas se pedía definir las funciones y el grado de privacidad de estos espacios. No obstante, después de observar que el espacio de la cocina crea debate, se ha añadido como otro espacio más a trabajar. A continuación se pueden ver las tablas que se han repartido a cada grupo.

<p>1-BEHE SOLAIRUKO GELA Ze funtzio emango zenioke? Ze publikotasun maila?</p>
<p>2-LEHEN SOLAIRUKO GELA Ze funtzio emango zenioke? Ze publikotasun maila?</p>
<p>3-PATIOA Ze funtzio emango zenioke? Ze publikotasun maila?</p>

<p>4- KANPO EREMUA Ze funtzio emango zenioke? Ze eremutan?</p>  
--

PLENARIOA / PLENARIO

Talde txikietan garatutakoa elkar banatu dugu eta orri handi batean ariketan landutako ideiak jaso ditugu. Ariketatik ateratako emaitzak ondorengoak dira:

Hemos compartido lo que se ha trabajado en cada grupo y hemos ido recogiendo todas las aportaciones en una hoja grande. Los resultados del ejercicio son los siguientes:

1-ESPACIO: AULA DE LA PLANTA BAJA

- Emakume eta feminismoan espezializatutako dokumentazio zentroa / *Centro de documentación especializado en mujer y feminismo.*
- Irakurketa eta ordenagailu gela / *Aula de lectura y ordenadores*
- Eztabaidarako gunea / *Espacio para el debate*
- Erakusleiho bat izatea, irekia / *Que sea un escaparate, abierto.*
- Liburutegia / *Biblioteca*
- Ikus-entzunezko gela / *Sala audiovisual.*
- Emakumeen ekarpena jasoko duen txokoa, dinamikoa (agian udal liburutegiarekin elkarlana planteatu daiteke) / *Un rincón donde recoger las aportaciones de las mujeres (se puede plantear una colaboración con la biblioteca municipal).*
- Egon lekua / *Un lugar para estar*
- Umeak egoteko espazioa / *Espacio para I@s niñ@s.*

2-ESPACIO: AULA DE LA PRIMERA PLANTA

- Batukadarako gauzak jasotzeko gela / *Sala para guardar las cosas de la Batukada.*
- Gela polibalentea, publikotasun neurtua / *Aula polivalente, privacidad media*
- Erdibitzekotan zerbait ez finkoa, adib: bionboak, korrederak ... / *En el caso de dividir el aula que no sea algo fijo, ejemplo: biombos, correderas...*
- Haurtzaindegi zerbitzu puntuala / *Servicio de guardería puntual*
- Psikomotrizitate gela, ispiluekin / *Sala de psicomotricidad con espejos*
- Dantza, ariketa fisikoa ... / *Danza, ejercicio físico...*

3-ESPACIO: PATIO INTERIOR

- Panelak beste lekuetan ikusten ez diren albisteak jartzeko / *Paneles para poner noticias que no se ven en otros lados*
- Espazio bizia / *Espacio vivo*
- Koska kendu, patrioko lurzoru guztia maila berdinean jarri / *Quitar el escalón, poner todo el pavimento al mismo nivel*
- Bereziki ez funtzio bat eman, suertatzen diren gauzetarako espazio komodina / *No darle una función específica, espacio cómodo para las cosas que surjan*
- Eszenatokia / *Escenario* Te-a hartzeko mahaitxoak egongo diren espazioa. Topagune informala publikotasun osokoa / *Espacio donde habrá mesitas para tomar el té. Espacio de encuentro, informal, público totalmente*
- Egurrezko estruktura mugikorra bat, egurrezko kuboekin egina. Eszenatoki moduan erabiltzeko era erraz batean. Erraz mugitu daiteke eta tamaina ezberdinetako eszenatokiak sortu. Antzerkiak, kontzertuak egiteko ... / *Una estructura móvil de madera, hecho con cubos. Para poder utilizarlo como escenario de un modo fácil. Además pueden crearse escenarios de diversos tamaños. Para realizar teatros, conciertos*
- Erakusketa lekua / *Espacio para exposiciones*
- Landareak jartzeko lekua / *Espacio para poner plantas*
- Pasillo zentral bat sortu atzealderantz beste sarrera bat eginez, eta gaur egun dauden komunak beste leku batean kokatuz / *Crear un pasillo central que comunique desde la entrada principal hasta la parte exterior trasera. Para ello habría que quitar los baños que hay actualmente y ponerlos en algún otro rincón*
- Apaindua / *Decorado*

4-ESPACIO: ZONA EXTERIOR

- Lehendik dauden erabilerak errespetatu, elkarbizitza arauak nola uztartu aztertu beharko da / *Respetar los usos que existen anteriormente, habrá que analizar algunas normas de convivencia*
- Zuhaitzaren inguruan eserlekuak / *Bancos alrededor del árbol*
- Atentzioa deituko duen zer edo zer sarreran / *Algo que llame la atención en la entrada*
- Oholtza mugikorra edo ez: dantza, kanta ... / *Un escenario móvil o estanco: danza, conciertos...*
- Terraza, mahai eta aulkiak dituen eremua / *Terraza, espacio con mesas y sillas*
- Txabola / *Chabola*
- Baratza / *Huerta*
- Tirolina
- Aterpea, haizetik eta eguraldi txarretik babesteko. Bestalde kanpoko altzariak gordetzeko balio dezake / *Zona que resguarde del viento y del mal tiempo. Además puede usarse para guardar el mobiliario exterior*
- Kristalera / *Cristalera*
- Kirol aniztasuna sustatu / *Promover la diversidad deportiva*
- Konpost txabolaren lekua aldatu, sarrera nagusitik pixka bat aldentu / *Cambiar el sitio de la caseta del compost, alejarlo un poco de la entrada principal*
- Etxearen luzapen kontzeptua / *Concepto de extensión de la casa*

5-ESPACIO: COCINA

- Mahai ez mugikorrak, espazio batetik bestera mugitu ahal izateko, kanpora atera edota momentu jakin batean mahaiak bildu eta sukaldea beste funtzio baterako erabilgarri izatea / *Mesas móviles, para poder moverlos de un espacio a otro, sacarlos a fuera o en un momento dado poder recogerlas y darle otro uso a este espacio*
- Kanpoaldera zuzenean ateratzeko atea ireki / *Abrir una puerta hacia el exterior*
- Harremanetarako espazioa. Isla moduko bat jarri horren inguruan biltzeko jendea / *Espacio para relacionarse. Poner una isla central para que la gente se reúna al rededor de esta*
- Gela hau oso handia da, beraz espazio banatzeko aukera aztertu baina intimitatea bermatuz / *Es un aula muy grade, por eso analizar la posibilidad de dividir este espacio garantizando la intimidad*
- Soziedade gastronomiko feminista / *Sociedad gastronómica feminista*
- Sukalde txiki bat gela polibalente baten baitan kokatua / *Una cocina más pequeña integrada en un aula polivalente*
- Espazio itxia eta berezitua / *Espacio cerrado y diferenciado*
- Interkulturala / *Intercultural*

6-ESPACIO: OTROS

- Espazio hau herriko beste eremuetan nola proiektatu pentsatu behar da. Adib: era original eta ezberdinetan ekimenak iragarri./ *Hay que pensar como proyectar este espacio en otros ámbitos del pueblo. Por ejemplo: Anunciando las actividades de un modo diferente y original.*
- Espazio berri ikustarazi. Adib: herritik behera seinalizazioa, kursaal-eko argiztapen modukoak, puxika erraldoia airean ... / *Visibilizar el nuevo espacio. Ejemplo: señalización vial, iluminación tipo Kursaal, globo gigante etc.*

5. AMAIERA / FINAL

Bukatzeko, ariketa osorik amaitzeko denborarik ez duela eman adierazi da, oraindik gune bakoitzerako ateratako ideia guztiak aztertu eta bateragarriak diren elementuekin eremu bakoitzari funtzio orokor bat definitzea baita helburua. Kanpo eremua ezberdina da, funtzio nagusi bat baino gehiago egon daitezkeelako.

Beraz, hurrengo saioan ariketa honi amaiera ematea erabaki da eta ondoren erabakitako elementu eta funtzioen arabera, buruan dugun guztia irudikatzea izango da helburua.

Para finalizar se ha expresado que no ha dado tiempo a terminar el ejercicio completamente, ya que todavía quedaría analizar todas las ideas recogidas y ver cuáles pueden ser compatibles y así poder definir una función general para cada espacio. El espacio exterior es diferente, ya que pueden complementarse funciones muy diversas.

Por tanto se ha decidido terminar este ejercicio en la próxima sesión. Una vez definidos los espacios tendremos tiempo para imaginar y plasmar todo lo que visualizamos cada una, por lo menos, ese será el objetivo de la próxima sesión.